

Gida didaktikoa

**HAN ETA HEMENGO
IPUINAK II**

Mariurrika

Mariurrika

Gida didaktikoaren azalpena

- Gai-zerrenda : 1. or.
- Helburuak 2. or.
- Jarduerak 2. or.
- 1.- Ahozko hizkuntza 5. or
- 2.- Idatzizko hizkuntza 6. or
- Gidoi literarioa 4. or.

Bibliografia 15.or.

Egileak 16.or.

Gidaren azalpena:

HELBURUA:

Bideoan ikusitako istoriotik abiatuta, fikziozko testu narratibo bat ekoiztea, ipuin-kontaktako saioa prestatzeko. Kanala: ahozkoa. Eremua: lagunartekoa. Hartzailea: haurrak eta gurasoak. Testua ekoizteko, planifikazioko, testuratzeko eta gainbegiratzeko eragiketak egingo dira.

EDUKIAK:

NARRAZIOARI BURUZKO KONTZEPTUAK:

Trama: Hartzaileak nola duen gertakarien berri: anakronikoa, bukaeratik hasierara.

Pertsonaiak: traman eragiten dutenak kontsideratzen dira: izan daitezke subjektu narratiboak (Mariurrika) edo objektu narratiboak (Mariurrikaren neba).

PLANIFIKAZIOA:

IGORLEA: narratzailearen eta egilearen arteko erlazioa: narratzailea eta egilea pertsona bera dira.

EGITURA :

Pertsonaia(k) deskribatzea.

Espazioan kokatzea.

Espazioa deskribatzea.

Polifonia: diskurtso zuzena eta zehar-estiloa.

TESTURATZEA:

KOHERENTZIA:

Intonazioa eta keinuak:

Kontakizunaren gaiarekin bat datozen keinuez eta intonazioaz hausnartzea eta saiakerak egitea.

Izenen kohesioa:

LEXIKOA:

Izenondoak: pertsonen eta lekuen ezaugarriak deskribatzeko.

Aditzondoak: ekintzen izaera deskribatzeko.

Aditzen kohesioa:

Gertakari desorekatzaileak iragartzeko, aditzaren aspektua puntukaria izango da.

Aditz perifrastikoak: Nor eta Nor(zer)-nork, indikatiboko orainaldia eta lehenaldia lehen pertsonan.

Erori da eta bota dut, bultzatu dut... Mariurrikak, gezurra esateko, aditza desagentibizatu du. Subjektu eragilea kendu du. Nork subjektuak eragiten duen aldaketaz hausnartzeko parada ona dugu hemen.

Nor eta Nor-nork paradigmak kontrastatzeko:

Jarduera: Ikasleek, honetaz hausnartzeko, enuntziatu hauen esanahia marraztu edo antzez dezakete.

Busti naiz / busti dut. Sua itzali da / sua itzali dut. Zikindu zait / zikindu dut. Margotu dut / margotu naiz. Bultzatu dut / bultzatu nau. Ikusi dut / ikusi nau...

ANTOLATZAILEAK:

Denborazkoak:

Behin batean. Bazen behin. Bat-batean. Halako batean. Une hartan.

Baino lehenago. Orduko. Eta gero. -nez gero. -neko. -nean. -tzear. -netik. -netik hona. -tik hona.

Bukaera adieraztekoak:

Zorion kontalariarentzat eta zorion entzun duenarentzat. Harik etaarte.

Balorazioak egitekoak:

Beraz. Hori dela eta. Gauzak horrela.

DEKLINABIDEA: Nork, Nori, Norengana, non, nondik (sg. eta pl.)

Gidoi literarioa:

Mariurrika

Gaur, haitzuloa txukundu egin behar dut, azken euriek zikindu egin didate eta. Triatati... triatato...

PAGOMARI: Tarari... tararaaaa... (abestia jarraituz) Kaixo! Ba al da inor etxean?

MARI: E? Ene! Nor zara?

PAGOMARI: Ui! Ahaztu egin zara nitaz ala? (Barre)

MARI: Ez, ez horixe! Nolatan zu hemen?

PAGOMARI: Ba, zu ikusteko irrikan nengoen, eta hementxe nauzu!

MARI: (Musu) Ai, ai, ai..

PAGOMARI: (Musu) Baina, baina... hau da kuxidatea, neska!

MARI: Bai, ez zara etorri unerik egokienean. Txukuntzen harrapatu nauzu, dena hankaz gora daukat eta.

PAGOMARI: (Barre) / Beno, lagundu egingo dizut, eta, trukean, bazkaltzera gonbidatuko nauzu.

MARI: Beno, tira... Ados.

PAGOMARI: (Barre)

MARI: Begira, zuk har itzazu liburu guztiak eta jarri apalean. Eta nik... nik...

PAGOMARI: / Badakit! Artxila, mortxila... (OFF) (Barre)

PAGOMARI: Kito! Orain, jantziak. Non nahi dituzu?

MARI: Hara! Ez nuen horrela egiteko asmorik.

PAGOMARI: Baina, baina... zertarako nahi dituzu orduan ahalmen magikoak?

MARI: Ai! Ba, egia da! Artxila, mortxila!

PAGOMARI: Ai, ai, ai...Ez dut ulertzen nola ez zaizun lehenago bururatu!

MARI: Jmmm! Izan ere... ehm, ehm... (xurumuruak)

PAGOMARI: Nik ez dut inor ikusten! Haurrak? Hurrek ikusten gaituztela? Baina, baina...
Nik ez dut umeen arrastorik ikusten, ezta usainik nabaritzen ere!

MARI: (Pagomariri belarrira hitz egin dio.)

PAGOMARI: Zer? Espioiak zure kobazuloan? Ai, ai, ai, ni banoa!

MARI: Baina nora zoaz, Pagomari... Itxaron pixka batean...

PAGOMARI: Entzun ondo! Ez dut atsegin inor ni zelatatzen ibiltzea! Zuri axola ez bazaizu, hor konpon!

MARI: Pagomari... Pagomari... Itxaron! Itxaron! Ez duzu ulertzen!

PAGOMARI: Ja! Gainera, (MARI imitatuz) "ez duzu ulertzen"?

MARI: Pagomari... Pagomari... Kontuz ibiliii!

PAGOMARI: Tuntuna halakoa!

MARI: Mariurrika dabil-eta! / Ai, ene... Ez dut ikusi nahi!

MARI: Ene, Mariurrikaren espirituak harrapatu ez zaitu ba! /

PAGOMARI: Hau zartakoa! Ezin naiz mugitu ere egin! Gorputz osoa minbera daukat! / Hau zartakoa...aa...

MARI: Heldu nire besoari, nik eramango zaitut. Azkar, Mariurrikaren espiritua itzuli baino lehen!

PAGOMARI: Zer espiritu eta espiritu ondo! Hori ez zen espiritua, sekulako zartakoa eman dit eta!

MARI: Nahi duzuna, baina, dena delako hori itzuli baino lehen sartu behar dugu kobazulora. (Ad Lib)

PAGOMARI: Ez dut nahi, han zelatariak daude-eta. Ni banoa neurera!

MARIURRI:(Irrintzia egin du, eta Pagomarirengana hurbildu da).

MARI: Pagomari! Pagomari!

MARIURRI: (Irrintzia egin du)

MARI: Zure atzetik... kontuz!

MARIURRI: :(Irrintzia egin du)

PAGOMARI: Oiiiiii! Uiii! Berrero? Hau eguna!

MARI: Pagomari, gaixoa, zergatik ez didazu kasurik egin? E?

PAGOMARI: Zergatik? Brrr! Utz nazazu bakean!

MARIURRI: (Irrintzia egin du)

MARI: Berrero dator! Azkar! Azkar kobazulora! Kobazuloraaaa! //

MARIURRI: :(Irrintzia egin du)

MARI: Ufa! Harrapatu ez gaituenean! Hau nekea!

PAGOMARI: Ea, ba ez, mmm! A, hor, hor egongo dira!

MARI: Kar, kar, kar... Ez dituzu aurkituko, emakumea! Telebistan gaude! Non bizi zara, ba? Telebista zer den ere ez dakizu? Kar, kar, kar...

PAGOMARI: E? Ez dut ezer ulertzen! Izan ere, denbora luzean egon naiz lotan pagoen azpian.

MARI: (Barre)

MARI: Je, je... tori, tori... jan zazu zerbait... beharko duzu eta! / (Barre)

PAGOMARI: Bai... Uuuuhm! Uuuuuhm! Eta zurrumbilo hori, nor dela esan duzu? Mariurrika?

MARI: Bai, Mariurrika. Ez duzu gogoratzen haren istorioa?

PAGOMARI: Uuuuhm... Ez dut sekula entzun. Arrastorik ere ez!

MARI: Kontatuko dizut, ba. ... mmm! Hobeto esanda... denoi kontatuko dizuet!

PAGOMARI: Denoi? Niri esan nahiko duzu!

MARI: kar, kar, kar...Ikus-entzule guztioi! (Barre) (Barre)

PAGOMARI: Zuk aluzinatu egiten duzu! Hemen, gu biok kenduta, ez da inor!

MARI: Kaixo, ikus-entzule guztiok. Mariurrikaren ipuina kontatuko dizuet. Bide batez, Pagomarik ere, nire lagunak, entzun egingo du.

PAGOMARI: / Kaixo, moñoñoook! (Iseka egin die ikusleei).

MARI: E, e, e! Ez ezazu egin hori! Nire lagunak dira!

PAGOMARI: Bale! Zintzo-zintzo portatuko naiz!

MARI: (Pazientzia) Aaiiii! Kaixo!

PAGOMARI: Kaixo!

BEHIA: Muuuu!

IGELA: Krok, krok...

MARI: (Off) Behin batean, Abadiñoako jauregian, Muntzarazko jauna bizi zen.

IBON: Epa! Zer moduz? (Barre)

MARI: (Off) Zahartu zenean, Muntzarazko jaunak oinordekoa izendatu behar izan zuen...

AITOR: Urteak joan, urteak etorri, aguretu egin naiz, seme-alabok, eta laster ezingo dut lanik egin. Hortaz, oinordekoa izendatu beharra daukat.

AITOR: Eta badakizue, antzinako ohiturari jarraituz, lur guztiak eta jauregia seme nagusiari dagozkiola.

MARIURRI: E? Ez! Eta ni?

AITOR: Zu... Zu ezkondu egingo zara edo moja sartuko zara! Aditu? (Eztulak)

MARIURRI: Baina, aita! Mixerian utziko nauzu! Ez dut ezer izango! Nondik biziko naiz?

AITOR: Ixo! Lege zaharrak hori agintzen du. Horrela izan da beti eta izango da aurrerantzean ere. Nire azken hitza da. (Eztulak)

MARIURRI: Ez dago eskubiderik! Ez da zilegi! Lege zaharra aldatu beharra dago!

AITOR: Isiltzeko! Alde hemendik, eta ez dakizula bururatu kontu hori berriro aipatze hutsa ere!

MARIURRI: Ez nago ados, bidegabekeria izugarria da, ez dago eskubiderik!

ALAZNE: Arrazoi duzu, Mariurrika, baina ezin dizut lagundu. Ez dakit zer egin daitekeen. Gauzak horrela izan dira beti eta...

MARIURRI: Bada aldatzeko garaia! Zergatik geratu behar dut ezer gabe, e? (Negar batean). Ez dago eskubiderik! Zer egingo dut, e?

ALAZNE: Ez dakit, ez dakit... Zurekin ados nagoen arren, ezin dizut lagundu! Ai! / Hau zorit-xarra!

MARI: (OFF) Gauzak horrela, Mariurrikak ez zion ezer esan inori, baina ideia bat bururatu zitzaion...

MARIURRI: (Barre)

MARI: ...ideia beltza eta zorigaiztokoa...

MARIURRI: Ibon, lagunduko zenidake Urkiolaraino oinez?

IBON: E? Zer dela eta? Zer galdu zaizu Urkiolan? Eta oinez? Zergatik?

MARIURRI: Uuuuuhm... Senargaia aurkitu nahi dut, eta San Antoniori promesa egin diot.

IBON: Promesa? Jakin daiteke zer agindu diozun San Antoniori?

MARIURRI: Ba, oinez joango naizela eta, ordainetan, senargaia emango didala.

IBON: (Barre) Nobioa?

MARIURRI: (Barre) Bai, eta, hoberena eman diezadan, oinez joango naizela agindu diot.

IBON: Uuuuuhm... Oso urruti dago baina! Eta bidea malkartsua da, amildegiz betea!

MARIURRI: Hain zuzen ere, horrexegatik behar dut zure laguntza...

MARIURRI: ...ez naiz eta bakarrik joaten ausartzen.

IBON: Ez dakit, ba, nik...

IBON: Tira, Mariurrika, goazen, goazen... // (Abestuz. Ez dakit zer, baina abestu zerbait, mesedez) (Agian "Goazen mendirik mendi, baserritik baserrira...?")

MARI: (off) Goiz batean, jauregia utzi eta Urkiolarantz abiatu ziren neba-arrebak. Bide luzea egin zuten, eta, gora heldu zirenean...

MARIURRI: Ibon, ezin dut gehiago! Eseriko gara une batez?

IBON: Baselizara heltzen garenean! Aurrera!

MARIURRI: Aaii... Ezin dut gehiago, egon!

IBON: Tira, tira... ez dago presarik. Pixka batean eseriko gara eta inguruaz gozatuko dugu. /

MARI: Halaxe ba... Urkiolara heldu baino lehen atsedean txiki bat hartzea hobe zutela erabaki zuen Ibonek. Gizagaixoak ez zekien bere arreba gaiztoa zer-nolako azpijokotan zebilen.

IBON: Ura nahi?

MARIURRI: Bai, eman! Hau egarria! Ag, ai, hau nazka! Zer eman didazu?

IBON: Ura! Zer bestela?

MARIURRI: Bero-bero dago! Banoa ur freskoaren bila!

IBON: Baina zer dauka honek?

MARIURRI: Oraintxe nator!

IBON: Bai, bai... Gero arte / (Abestia berriro)

IGELA: Krok, krok...

IGELA: Krok, krok...

IBON: A! Hau ikuspegi ederra!

MARIURRI: (Barre) Orain ikusiko duzu, Ibon! (Barre)

IBON: Non demontre sartu da emakume hau? (OFF) Martxa honetan, heldu baino lehen ilunduko du. (ON) Mariurrika!

Mariurrika! / E, Mariurrika! Mariurrika!

IBON: Non sartu zara? Ene! Ez zen ba amildegitik eroriko, e? Ez... ezin liteke izan, nik ez dut ezer aditu! Mariurrika! (Oihartzuna) Mariurrika! Mariurrika! // Mariurrikaa! (Oihartzuna) / Mariurrikaaaa! / Mariurrikaaaa! / Mariurrikaaaa! / Mariurrikaaaa! (Oihartzuna)

MARI: Arrebari deitzen zion Ibonek behin eta berriro. Baina oihartzunak baino ez zion erantzuten...

MARIURRI: Uuu!

IBON: Aaii!

MARIURRI: Hemen naiz! Zer dela eta horrenbeste zarata?

IBON: O...! Hau sustoa! Mariurrika, uste nuen erori zinela, eta ikaratuta nengoen.

IBON: Ez dut txantxetarako gogorik! Kendu paretik, ganorabako hutsa zara eta! Badakizu zer-nolako sustoa eman didazun? Tentel halako horrek!

MARIURRI: Ni erori? Nola bururatu zaizu? Ni ez naiz erortzen...

MARIURRI: (anker) ...ez hain erraz behintzat, baina zu...zu bai, zu bai, begira!

IBON: Aaaaaarrgh! / Ooooooo! Ez! Lagunduuuu!

MARIURRI: (Barre) (Irrintzika)

IGELA: Hil egin du! Mariurrikak Ibon hil du!

BEHIA: Ez da izango! Muuuuu!

MARIURRI: (Negar)

MARIURRI: Ama! Aita! Ama! Hau zoritxarra! Ene! Aaii! /

AITOR: Zer gertatu da? Zer duzu, alaba?

ALAZNE: Ibon, Mariurrika, zer gertatu da?

MARIURRI: (Negar egiten)

ALASNE: Zer gertatu da? Zergatik zaude horrela? // Esan, mesedez, zer gertatu den, alaba!

AITOR: Eta Ibon, non da?

ALASNE: Mariurrika, non da zure neba? Non? Zergatik ez da hemen?

AITOR: Esan non den zure neba? Zer gertatu zaio? / Aaa, ene Jainkoa!

MARIURRI: Hil egin da, aita!

AITOR: (OOF) E? Zer? Zeer?

ALASNE: Ez, ezin daiteke izan! Non da? /

AITOR: (off) Nola izan da?

MARIURRI: Amildegian behera erori da. Bidetik gindoazela, estropezu egin du, oreka galdu, eta erori egin da.

ALASNE: Aaaii, nire semea!

AITOR: (Eztulak)

MARIURRI: Ezin izan dut ezer egin. Amildegira jaisten saiatu naiz, baina ez dut lortu.

MARIURRI: Ai, zergatik ez ote naiz ni hil!

ALASNE: Ez ezazu horrelakorik esan, mesedez!

AITOR: (Eztulak) Gorpuaren bila joango gara.

MARI: (Off) Eta hala egin zuten. Gorpua bildu eta lur eman zioten.///

MARI: (Hamazazpi) Baina gaizki egin zuela-eta, barruko harrak ez zion bakerik ematen Mariurrikari. Eta...

AITOR: Egingo nuke hau ez dela istripua izan! Mariurrikak zerbait gordetzen du isilik. Ziur naiz. Eta ez dut etsiko zer den jakin arte.

ALASNE: Ene seme gixajoa! Hain zen ona... eta langilea...! Ez zuen halakorik merezi, ez horixe!

MARIURRI: Aitak zerbait susmatzen du. Biokin zuzen eta berdin jokatu izan bazuten, ez nuen halakorik egin beharrik izango.

MARIURRI: (Irudi txikian) Ni erori? Nola bururatu zaizu? Ni ez naiz erortzen, ez hain erraz bederen, baina zu ... zu bai, begira!

IBON: Aaaaarrgh! Ooooooo! Ez! Lagunduuuu!

MARIURRI: (Irudi handian)

AITOR: Alaba dongea zara. Eta ez zaitut sekula gehiago ikusi nahi.

IRATXO A: Etorri gurekin, kar, kar, kar...

IRATXO B: Baaaii, etorri, etorri, kar, kar, kar...

MARIURRI: Aaa! Ez! Oooo! Hau amesgaiztoa!

ALASNE: Etsipen handia eman didazu, alaba, eta ezin maitatuko zaitut.

IRATXO A: Ji, ji, ji...

IRATXO B: Etorri, etorri, kar, kar, kar...

MARIURRI: Alde hemendik! Utz nazazue bakean! Alde! Txikituko zaituztet!

IGELA: Krok, krok...

MARI: Eta, harrezkero, ez da haren berri izan. Batzuek diote zurrumbilo gorri hori Mariurrika dela, eta gaiztakeriak baino ez dituela egiten.

MARI: Zuek sinesten duzue?

IGELA: Krok...

PAGOMARI: Uuuuhm (Ez dakit)

MARI: Ba, nik bai. Zorion entzun duenarentzat, zorion kontatu duenarentzat.

PAGOMARI: Hau istorio tristea!

MARI: Bai, oso!

PAGOMARI: Eta nik uste nuen nirea zela tristeena! (Barre)

MARI: (Barre) Hori... hori beste egun baterako utziko dugu, e, haurrok? Aguur!
Hurrengora artee!

PAGOMARI: Aguur! Beste bat artee!

IGELA: Krok, krok...

BIBLIOGRAFIA.

AZKUE, R. M. (1989). Euskalerrriaren yakintza. Literatura popular del País Vasco II: Cuentos y Leyendas. Euskaltzaindia & Espasa Calpe. Madrid.

Mundu zabaleko ipuinak (1981) Gero argitaletxea. Bilbo.

DUESO, J. (1997). Cuentos y leyendas de Euskal Herria fantástica ROGER argitaletxea. Donostia

BARANDIARAN IRIZAR, L. (1995). Antología de fábulas, cuentos y leyendas del País Vasco. Donostia

BASILE, J. B. (1991). El pentamerón. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.

JACOBS, J.(1987). Cuentos de hadas célticos. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.

ANDERSEN, C. (1973). La sombra y otros cuentos. Alianza Editorial, S.A. Madrid.

CURTIS, E.S.(1999). Las flechas mágicas y otros relatos de los indios cheyenes, comanches, wíchitas... José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona

GUELBENZU, J. M. (1996). Cuentos populares españoles. Siruela argitaletxea. Bartzelona.

AFANASIEV, A. N. (1983). Cuentos populares rusos I. Anaya argitaletxea. El gran encuentro. liburu bilduma. (1995). SM argitaletxea.

PHILIP, N. (1995). El libro ilustrado de los mitos. Ediciones BUHO:, S.Alizia.

GIBSON, M. (1984). Monstruos, dioses y hombres de la mitología griega. Anaya

TAO TAO LIU SANDERS. (1984). "Dragones, dioses y espíritus de la mitología china" Anaya

BRANSTON, B. (1984). Dioses y héroes de la mitología vikinga. Anaya

Interneteko helbideak:

www.Zernola.net: Alegiak/alegien zerrenda.

<http://www.pnte.cfnavarra.es/kzeta/ipuina.htm>

<http://www.teatroa.com/ipuinak.html>

<http://www.teatroa.com/ipuinak/36lamia.html>

EGILEAK

**GOIATZ
MULTIMEDIA, S.L.**

PRODUKTOREA:
Luisa Calvo

**EGITASMOA, GIDOIA
ETA GIDA DIDAKTIKOA:**
Luisa Calvo

**GIDA DIDAKTIKOAREN
EUSKARAKO ARDURADUNA:**
Joan Ignazio Bereziartua

**ZUZENDARITZA ETA
ERREALIZAZIOA:**
Mikel Val

SOINU BANDA:
Inhar Val

EDIZIOA:
Goiatz Multimedia, S.L.

TXOTXONGILOAK:

Goiatz Multimedia, S.L.

DEKORATUAK:

Sara García

TXOTXONGIOLARIAK:

Macarena Sobrón

Noemí Sobrón

Ana M^a Rodríguez

K 2 0 0 0 S . A .

Produktore exekutiboa:

Tomas Ugalde

Euskarako arduraduna:

Josu Varela

Bikoizketako zuzendaria:

Alvaro Sánchez

Sarrerako kanta:

Ana Tere Bengoetxea

Ahotsak:

Monika Erdozia

J. L. Irigoien

Pedro Arrieta

Ana T. Bengoetxea

Ramón F. De Castro

Kepa Kueto

Jon Goirizelaia

Tere Jaio

Eduardo Gorriño

Audioko teknikariak:

Ricardo Goti

Antonio González

Javier Artetxe

Nahasketak:

Gorka Lara

Juan C. Cantera

Produkzioko laguntzailea:

Ana Urresti

Koordinatzailea:

Jon Arce

EIMA 2000

**Ikasmaterial honek Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa
Sailaren egokitasun-aitormena du:
2004-12-16**

LEGE GORDAILUA: : SS-1038/04

**L.C. PRODUKTOREA
tel.: 945-230715**